

ARTE ESZENIKOEN ALORREKO KONTRATATZAILE ETA KONTRATATUEN ARTEKO HARREMANAK ARAUTZEKO PRAKTIKA EGOKIEN ESKULIBURUA SORTZEKO OINARRIAK

ATARIKOA

Dokumentu honetan bildu nahi ditugu arte eszenikoen alorreko kontratatzaile eta kontratatuen arteko harremanak ahalik eta zuzen, orekatu eta arinenak izatea lortzeko praktika egokiak.

Gure asmoa da baita, harremanok gure lanbidearen duintasunean oinarritzea, eta kasu berezia egitea bai arte eszenikoen teknikaren alorrean lan egiten dugunok izan ditzakegun arriskuei, baita langileen prestakuntzari ere.

Ziur gaude proposatzen ditugun puntu hauetan oinarrituko diren kontratatzaile eta kontratatuen arteko harremanak onuragarriak izango direla bai gure alorreko langileentzat, bai kontratatzen dituzten enpresentzako, eta baita azken hauek kontratatzen dituzten erakundeentzako ere. Hau da, zer eszeniko osoaren onerako izango dela.

ATAEren lanbidea arautzearen aldeko lan taldeak prestatu duen dokumentu hau oinarritzen da 2007ko martxoaren 14ko ezohiko osoko bilkuran onartu zen gure lanbidea arautzeko akordioan, eta baita ordutik gaur egun arte sektoreko hainbat enpresek in izan ditugun bileretan ere.

Ez da hau dokumentu ixia baizik eta, alderantziz, gure sektorearekin zerikusia duen edozeinek egin ditzakeen ekarpen edo iradokizunei erabat zabalik dagoela.

KONTRATAZIOA

1. Kontratua gauzatzeko unean argitu eta zehaztu behar dira langileak bete beharko dituen zereginak eta baita langilearen eta kontratatzen duen enpresaren eskubideak eta betebeharrak ere.
2. Langilearen zereginak, eskubideak eta betebeharrak honek duen lan kategoriarik egokituko dira.
3. Kontratatutako langileek egindako lanaren ordainsaria lotuta egongo da, beste gauzen artean, bere lan kategoriarekin.
4. Mekanismo orekatzaileak aurkitu behar dira gure kontratazako eta lana antolatzeako era berezietan aplikatzeko, adibidez:
 - Aldi bateko kontratazioa
 - Autonomoen kontratazioa
5. Langile hauek egiten duten lana ordaintzeko unean kontuan hartu behar da:
 - Data zehatz baterako onartzen bada lan bat, egun horretan ezinezkoa izango da beste leku batean lan egitea. Beraz, lortutako akordioa errespetatua izan behar da, edo kontratatzaileak edo kontratatutak ez betetzearen kasuan, akordioaren indargabetzea aurreikusita egon beharko da.
 - Lana baloratzeko unean kontuan hartu behar da langileek ez dutela ez oporrik, ez atsedenaldirik, ez paga gehigarrikerik ere.
 - Kontratazio moduari dagokionez, lansaria desberdina izango da langilea besteen kontura kontratatua bada edo autonomoa bada.
 - Zerbitzu teknikoak jiran egitea lan baldintza berezia da.
6. Aurreikusita egon behar dira kontratatutako langileek lanean diharduten bitartean egin ditzaketen falta arin eta larriak, kontratua egin zeneko terminoen arabera (zereginak, eskubideak eta betebeharrak), eta dagozkien zigorrak ere.
7. Langile autonomoek izan behar dute erantzunkizun zibilaren asegarua.
8. Gune eszeniko batean zerbitzuak egiteko konkurtso batean parte hartzen dutenean, enpresek bete beharreko baldintzak ahalik eta zehatzenak izan behar dute bete behar den lanari dagokionez, eta aipatutako lanari egokituta egon beharko dute.
9. Zerbitzu tekniko eszenikoak beteko dituen enpresa bat kontratatzeako baldintzen artean, eskatu beharko dira zerbitzuok beteko dituzten langileak behar bezala kontratatuta daudela eta zerbitzu bakoitzak eskatzen duen kategoria eta gaitasuna daukatela erakusten duten dokumentuak (TC 2).

10. Zerbitzu tekniko eszenikoak beteko dituen enpresa bat kontratatzeko baldintzen artean, eskatu beharko dira lan arriskuen prebentziorako legeak galdatzen duen enpresaren tamainaren arabera prebentzio mota betetzen duela ziurtatzen duten dokumentuak.
11. Hautaketa prozesuan ezezik, kontratua indarrean dagoen bitartean ere, enpresa bati zerbitzuak azpikontratatzeko dizkion erakundeak hartu beharko du 8., 9. eta 10. ataletan esaten dena betetzearen ardura.
12. Behin azpikontratatuak enpresa bati zerbitzu bat eskatuta, bere osotasunean ordaindua izan beharko du, zerbitzuaren denbora aldatu arren, edo egoera konpontzeko modua aurreikusita egon beharko du.

LANAREN ANTOLAMENDUA

1. Gune zehatz baten egingo den edozein ikuskizun bidegarritasunak izan beharko du gune horretako administrazioaren arduradunen, programazio edo arte sailaren eta teknika sailaren onspena.
2. Hiru sail hauen arduradunen arteko harremanek konpetentzien banaketa egokia eta arduradun bakoitzak besteen gaitasunean jartzen duen konfidantza dute oinarri.
3. Gune eszenikoan lana antolatzeko dauden funtsezko tresnak dira gune beraren **FITXA TEKNIKOA** eta bertan taularatuko den ikuskizunaren **FITXA TEKNIKOA**. Fitxa bien azterketatik sortuko da ikuskizun bakoitzerako plan zehatza, non isladatuko diren zer nolako material eta ekipo behar diren, eta zenbat langile, dagozkien egutegi eta lan ordu eta atsedendiekin.
4. Fitxak egin eta interpretatzeko ardura izango dute horretarako gaitasuna eta prestakuntza duten langileek: arte eszenikoen teknikariak.
5. Gune batean programatuak ikuskizun bakoitzeko fitxa teknikoak bertako lana antolatzeko ardura duen teknikariaren eskutan egon beharko dira, aurretiaz eta nahiko denborarekin horrela planifikazioa modu egokienean burutu ahal izateko eta beti ezustekoak ekidinez. Ikuskizunerako gunean lanaren planifikazioa eta bere antolamendu egokia burutzerakoan ezinbestekoa da denbora nahikoarekin egitea horrela bermatu egingo baitira bai giza baliabideen eta tresneriaren aprobetxamendua eta baita kasu bakoitzerako ekonomiaren egokitze aproposa.
6. Lanaren antolamenduaren ardura duen teknikariak idatziz adierazi beharko dizkie bai langileari, baita azpikontratatuak zerbitzu-enpresari, behar den aurretiaz, egutegia, txandak eta lan eta atsedendiegiak.
7. Plan jakin bat jarraituz lanean diharduten teknikari guztiak, eta baita beste lanbideetako langileak (antzezleak, kantariak, zuzendariak, dantzariak, koreografoak...) aurreikusita dagoen bezala plana betetzen ahalegindu beharko dira, batez ere gremio bakoitzaren arduradunak.
8. Lanean dauden bitartean, teknikariak jarrera egokia erakutsi beharko dute:
 - Puntualtasuna
 - Taldekako lanak eta taldeen arteko lanak eskatzen duten jarrera atsegina eta kolaboratzailea.
 - Jarrera arduratsua eta, beharrezkoa izatekotan, erabakiak hartzeko gaitasuna.
 - Jarrera adostailea eta gatzakak sortzekotan, akordioak eta konponbideak lortzen ahaleginduko dena.
 - Adi-adi egon izan daitezkeen arriskuen aurrean.
 - Norberaren eta lankideen osotasun pertsonala arriskuan jarriko ez duten prozedurak eta ohiturak izatea.
9. Jiran dauden teknikarien garraioa egoerari egokitzen zaizkion bitartekoekin egingo da. Beste konponbiderik ez badago, eta teknikariek lanaldi biren arteko atsedena gune eszeniko batetik bestera doazen bitartean hartu behar badute, bitarteko egokiak erabili beharko dira.
10. Ibilgailuez arduratzen denak gidari profesionala izan beharko du.
11. Teknikari batek ibilgailua gidatu behar baldin badu lan egin behar duen lekura heltzeko, kontutan hartuko zaio dagozkion lanaldia eta atsedendia planifikatzeko unean.
12. Jira dagoenean, arduradun tekniko batek edo produkzio arduradun batek hartuko du lana antolatzeko kargu, bertako arduradunarekin batera, eta higiene eta segurtasun baldintzak egokiak direla egiaztatuko du ere.

LANALDI ETA ATSEDENALDIAK

1. Eguneko, asteko, hilabeteko eta urteko lanaldiak arrazoizko iraupena izan beharko du. Ez du ez laburregia ez luzeegia izan behar.

2. Beste batzuetan bezala, gure lan-sektorean posibleak dira 8 ordu baino luzeagoak diren lanaldiak eta, beraz, astean 40 ordu baino luzeagoak izatea ere.
Posibleak dira baita 4 ordu baino laburragoak diren lanaldiak eta, beraz, astean 40 ordu baino laburragoak direnak ere.
3. Gure lanaldien berezitasunak orekatzeko mekanismoak aurkitu behar dira eta, zehatzago:
 - Lanaldi luzeak
 - Lanaldi laburrak
 - Lanaldien arteko atsedenaldira laburra
 - Lanaldia luzatu ala laburtzeagatik, bapateko aldaketak lan-plangintzan.
 - Lekualdatzeetan ematen den denbora
 - Jiretan ematen diren lan baldintza bereziak
 - Gauetz egiten den lana
 - Jai egunetan egiten den lana
4. Aipatutako mekanismoak ondoko hauek izan daitezke:
 - Lanaldi luzeak eramangarri egingo dituzten txandatan banatutako lanaldiak.
 - Lanaldi luzeak aisialdiaren bitartez (atseden egunak) konpentsatzea.
 - Arrazoizko lanalditik gorako orduak ohiko bata baino haundiagoko balorea izatea.
 - Gutxienezko lanaldira heltzen ez diren orduak ohiko baino haundiagoko balorea izatea.
 - Arrazoizkoak baino luzeagoak diren lanaldiak konpentsatzea egunekoak, astekoak, hilabetekoak eta urtekoak laburtuz.
 - Langileak egun libre gehiago izatea.
5. Langileak enpresaren beharrak kontutan hartu beharko ditu bere egun libreak hartzeko unean.
6. Bai enpresak baita langileek ere lan egindako orduen kontrol gaurkotua egin beharko dute.

PRESTAKUNTZA

1. Bai enpresek baita bertan lan egiten duten langileek ere arte eszenikoen teknikarien lan kategoriak ezagutzeko prestakuntza ofiziala lortzeko eskubidea aldarrikatzen dute.
2. Arte eszenikoen edozein langilek badu enpresak osotasunean edo zati batean ordaindutako etengabeko prestakuntzarako eskubidea.
3. Langile eta enpresentzako formularik egokiena bilatuko da, langileen prestakuntza inplikaturako guztientzako onuragarria izan dadin, eta ez inolaz ere inorentzako kaltegarri.
4. Arte eszenikoen langile guztiek badute birgaitzeko eskubidea urteko lanaldiaren barruan.
5. Arte eszenikoen enpresek eta baita langileek ere aldarrikatuko dute teknikariek duten lana ezagutzeko eskubidea, horrela lan bizitza oinarritzat hartuz duten eskarmentua egiaztatu ahal izateko.
6. Enpresak eta Instituto Nacional de las Cualificaciones Profesionales batera arituko dira lanean, Irudia eta Soinua familiaren ezagutze egitura giza eta lan-errealitatean txertatzeko, horrela zuzeneko ikuskizunen beste lanbideetara zabalduz.
7. Langileak enpresari erreztuko dio bere prestakuntza, ahal den neurrian Alberdi biren intereseetara egokituz, eta horrek profesionaltasun handiagoa ekarriko du, bai langilearentzako, baita enpresarentzako, baita sektorearentzako ere.
8. Enpresa osatzen duten guztiek, bai arduradunek eta baita langileek ere, langileriaren prestakuntza hobetzearen aldeko jarrera erakutsi beharko dute, jarduera eszenikoan parte hartzen duten guztien onerako ekintza bezala hartuz.

SEGURTASUNA

1. Bai enpresak eta baita besteen kontura lan egiten duten langileak ere, kontratatzaileak eta kontratatuak, kontu handiz ibiliko dira indarrean dagoen 31/1995 Lan Arriskuen Prebentzioarako Legearen aplikazioarekin, hau betez eta betearaziz eta inoiz ez betetzeren baten berri izatekotan, publikoki salatuz.
2. Bai enpresek eta baita besteen kontura lan egiten duten langileek ere, kontratatzaileak eta kontratatuak, arreta handia jarriko dute EPIen hornikuntzan, ezagutzan eta erabileran.
3. Enpresek kalitate, lan eta giza-antolamenduaren printzipioak jarraituko dituen nazio eta nazioarteko mailako jiren politika ezarriko dute, lanaldi luzeegiak saihesten saiaturaz, gure lanak dakarren

stresetik begiratzeko, lanaren antolakuntza egokia oinarritzat hartuz, beharrezkoak diren atsedendialdiak programatuz, eta ahal den neurrian, lana eta familiari dedikatutako denbora bateratzen lagunduko duten lanaldiak antolatuz.

4. Bai enpresak eta baita besteen kontura lan egiten duten langileak ere, kontratatzaileak eta kontratatuek, kontu handiz ibiliko dira enpresa kontratatzaileen, azpikontrataturako enpresen eta lanean dabiltzan gune eszenikoen larrialdi-planak betetzearekin, irregularitasunen bat jakitekotan berehala publikoki salatuz.
5. Bai enpresek eta baita besteen kontura lan egiten duten langileek ere, kontratatzaileek eta kontratatuek, langileek higiene pertsonal duina izan dezaten gutxienezko baldintzak eskatuko dituzte. Lanean ibiliko diren gune eszenikoez izan beharko dituzte teknikarien higiene pertsonalerako esparru egokiak. Esaterako: gune finko eta itxietan, aldagelak eta dutxak eta kaleko ikuskizunetan, zerbitzu eramangarriak.
6. Ahaleginak egin beharko dira lankidetzara iraunkorrerako itunak enpresekin, administrazio publikoekin, erakunde pribatuekin edo haien mendeko konpainiekin ezartzeko, foroetan eta mintegietan parte hartuz, laneko segurtasunaren arloan adi-adi ibiltzeko, ohitura txarrak ekidinez.
7. Prebentzioaren legeari jarraituz, langile autonomoek aurre egin behar diete haien erantzunkizunei.
8. Enpresen arduradun eta langileen artean, enpresen eta kontratatutako autonomoen artean, eta enpresen arteko koordinazioa da oinarritzeko elementu garrantzitsu bat arriskuen eta istripuen prebentziorako, eta lanean gaudenean segurtasuna bermatzeko.
9. Muntaia-prozesuak, probak edo lehen saioak, emanaldiak edo kontzertuak hasi baino lehen, prozesu horietan parte hartuko duten teknikari guztien bilera labur bat egingo da.
10. Bilera horretan, aipaturako lanak egingo diren lekuaren prebentzio-arduradunek beste teknikariei azalduko diete nolako arriskuei egin beharko dieten aurre bertan lan egiteagatik. Larrialdi kasurako dagoen ebakuazio-planaren berri ere emango diete.
11. Bilera horretan, gune horretan lan egingo duten enpresa bakoitzaren prebentzio-arduradunek beste langileei azalduko diete nolako arriskuei egin beharko dieten aurre bertan lan egiteagatik.
12. Behin informazio hori guztia entzundakoan, aipaturako arriskuak ekiditeko prebentzio-naurriak hartuko dira eta lan prozesuei hasiera emango zaie.
13. Prozesu guzti hauek egingo dira lanak hasi aurretik prebentzio-arduradun guztiek izandako aurretiko koordinazioa eta informazio-trukaketa alde batera utzi gabe.
14. "Briefing" izeneko bilera txiki honen helburu nagusia da gune eszeniko zehatz batean lan teknikoak egingo dituzten langile guztiengan alerta jarrera sortaraztea izan daitezkeen arriskuen aurrean. Jarrera hori egon daitezkeen EPIrik onena delakoan.
15. Gomendagarria da bilera horietan esparru zehatz batean lan egiteagatik izan daitezkeen arriskuak edo larrialdi kasuetarako dauden ihesbideak erakutsiko dituzten aurkezpen edo bideo laburrak erabiltzea, edo langileen segurtasunaren ikuspuntutik interesgarri suerta daitezkeen beste informaziorik ere, hegazkinetako zerbitzariak aurreratu aurretik antzetzten dutenaren antzekoa, edo hegazkinen eserlekuetako liburuxketan edo pantailetan agertzen denaren modukoa.